

"Ez dut entrenatzaile izateko balio"

Saskibalo denboraldia amaituta, Tati Garmendia Bera Bera taldeko kapitaina izan dugu solaskide. Denboraldiaren balantzea egitea eskatu diogu.

Raul Perez

Denboraldi hasierako helburua bete duzue eta datorren urtean Bera Bera European ariko da berriro...

Bai, baina helburua lan eskerga egin eta gero lortu dugu. Gero eta zailagoa da goiko postuetara heltzea, orain arte talde apalak izandakoek ere talde sendoak osatu baiti-



Tati Garmendia
Bera Bera
taldeko jokalaria
onenetakoa da.

tuzte. Hori gutxi balitz, akats ulertezinen ondorioz partidu bat baino gehiago galdu dugu. Datorren urtean ere Europako postuetan aritu nahi badugu, talde zabalagoa osatu beharko da.

Bera Bera-ren bigarren taldea Lehenengo Mailan ariko da datorren urtean. Ohorezko Mailan ari zareten zuek, nabari al duzue harrobiaren indarra?

Hala beharko luke, baina

maila horretan ere bidaia ugari egin behar izaten da; ikusteke dago, beraz, neska gazte hauen laguntza jaso ahal izango dugun. Zuzendaritzak euskal jokalarien aldeko apustuarekin jarraitzeko asmoa du. Arerioak gero eta indartsuagoak direla ikusita, gainontzeko taldeetan ari diren neska euskaldunak Donostiara ekartzeko ahalegina egin beharko litzateke.

26 urte besterik ez ditu-

zun arren, entrenatzaile lanetan ikusten al duzu zure burua, Reyes Karrerek egin zuen bezala?

Entrenatzaile izateko, ni bezalako jokalaria batek eskubaloaren beste ikuspuntu bat behar du. Alde horretatik Reyes oso ondo moldatu zen. Nik ez dut nire burua eskubaloi jokalekutik kanpo ikusten. Entrenatzaile-aulkian ez nuke jokalekuan dudan gaitasunik izango.

"European aritzeko, talde sendoa osatu beharko da datorren urtean"

Matrikula epea ekainaren 1etik 27ra

Aukera paregabea

XIRIMIRI : Gipuzkoa plaza, 2-2.943 42 64 66
EGIA : Villa Salia . Jai Alai aldapa .943 28 22 42
IRRINTZI : Iztueta Kalea 3- behea .943 32 76 11
AZPIL : Larratxo pasealekua 43-45 .943 39 39 36
INTXAURRONGO : Basotxiki 23 . 943 28 96 54

AMARA OSINAGA :
Gregorio Ordoñez 7. 943 47 45 92
AMARA BERRI : Isabel II , 14 . 943 45 02 02
ANTIGUA :
La sirena etxea ,
Igeldo pasealekua 943 21 80 88

æk
izena eman